

## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **2023ko URRIAREN 10ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO EZ OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2023ko urriaren 10ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, goizeko 10:00 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Maria Pilar Cortajarena Sorarrain  
Vicente Garcia Momblona  
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez  
Jose Agustin Arrieta Eguiguren

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DUTE: Ander Iturri Torrea eta Maria Isabel Vaquero Montero

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:


- 1. 2024 urterako udal Ordenantza Fiskalak eta udal zerbitzuengatiko tasa eta prezio publikoen ordenantzak onartzea/ Aprobación de las Ordenanzas Fiscales Municipales para el año 2024.**
- 2. Larraulgo hiri antolamenduko plan orokorra eta ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedurari buruzko dokumentuak idazteko lanen esleipena./ Adjudicación de los trabajos de redacción del plan general de ordenación urbana de Larraul y de los documentos relativos al procedimiento de evaluación ambiental estratégica.**
- 3. Larraulgo Zabaletako parkean kokatzeko “móvil home” bat erosteko kontratuaren plegu administrativo eta teknikoen onspena eta lizitazioa onestea/ Aprobación de la licitación y de los pliegos administrativos y técnicos del contrato para la adquisición de un móvil home para ubicar en el parque de Zabaleta de Larraul.**

..//...

#### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **2024 URTERAKO UDAL ORDENANTZA FISKALAK ETA UDAL ZERBITZUENGATIKO TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZAK ONARTZEA**

Ikusirik 2024 urterako udal ordenantza fiskalak aztertzeke unea dela.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik 2023 urteko urriaren 3ean Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak igorritako txostena, non jasotzen den ordenantza fiskalak sortu, aldatu eta ezabatzeko jarraitu beharreko prozedimendua, batetik, eta bestetik, 2024ko ekitaldian Udala aplikatzen datorren zerga eta tasak.

Ikusita Herritarrak batzorde informatzailearen aldeko irizpena.

Gaia eztabaidatu ondoren bozkatu egiten da, ondorengo delarik emaitza:

- Aldeko botoak: 4
- Kontrako botoak: 0
- Abstentzioak: 1

Bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatzak, gehiengo absolutoz,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2024 urterako zergak arautzen dituzten ordenantza fiskalari dagokionez, ondorengo aldaketak onestea:

## **2024 URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK.**

### **ALDAKETA PROPOSAMENAK**


#### **1.ZERGAK**

##### **1. ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA**

##### **ONDORENGO TARIFAK PROPOSATZEN DIRA**

- Hiri Ondasun Higiezin gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo tertziarioan: %0,4.
- Gainerako hiri ondasun higieziinei aplikagarri zaien karga tasa: %0,24.
- Landalur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: %0,7.

##### **2023 URTEAN INDARREAN EGON DIREN HOBARIAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

1- Famili Ugariak (3 ume edo gehiago) % 50.

familiaren ohiko etxebizitza den higiezinari dagokionean. Ondasun higiezin bati ohiko bizilekuaren izaera emateko ezinbesteko baldintza izango da ondasun higiezin horretan errolatuta egotea zerga hobaria izateko eskubidea duten familiako kide guztiak zergaren sortzapen hunean.

2- Eguzki aprobetxamendu termiko sistemak %25.

3-Gizarte-bonuaren laguntza:

Gaur egun, autokontsumoa sustatzearen ondorioz, udal-ekimen askok teknologia berriztagarri horietan inbertitzea sustatzen dute, OHZn hobarien bidez denbora-tarte jakin batean.

Kasu estandar bat OHZ osoaren %25eko hobaria izan daiteke lehenengo 4 urteetan edo inbertsioaren kostu osoaren %30era iritsi arte (honekin batera doa neurrien azterketa).

Horren bilakaera gisa, autokontsumo kolektiboa hedatzea ere helburu, autokontsumo partekaturako ekimenak sortzen hasi dira (Madril eta Cadizen kasua). Tratamendua berdin-berdina da; izan ere, azken finean, banaka inbertsioa egiten duten eta OHZn banakako autokontsumoaren antzeko hobariak dituzten bizilagun-komunitateak aipatzen dituzte.

### **ENERGIA-KOMUNITATEAK**

Sustatzen ari garen TEK ereduak, etxeek ez dute inbertsiorik egin beharrik edo beren izenean kreditua izan beharrik. Horrek zaildu egiten du OHZko hobaria, ez baitago banakako inbertsio ukigarririk murrizketa hori egiteko.

Gainera, proiektuaren kostu osoa hainbat erakundek diruz laguntzen dute (gaur egun badaude EEEK, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta, seguruenik, Europako funtsetatik datozen laguntzak).

Beraz, ereduak berak aurrezkiak sortzen ditu, eta, beraz, horrelako hobari fiskal batek ez luke leku handirik izango.

Hala ere, bada kasu berezi bat: bonu soziala.

Bonu hori eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten familiek azken aukerako merkaturatzaile batekin kontratatuta izan behar dute tarifa elektrikoak.

Neurri hori koherentea izan liteke, kostu elektrikoak finkatuta baitaude eta merkaturatze elektrikoaren gaineko irabazi-marjina handiak saihesten baitituzte, baina merkaturatzaile arautu horiek dute energia ez-berriztagarriaren ehuneko handiena beren mix elektrikoan.

Hori dela eta, bateraezina da %100 berriztagarria izan nahi duten familiek bonu sozialaren pribilegio horri eusteko aukera izatea. Bateraezina da jatorri berriztagarria duen hornidura elektrikoak izatea eta bonu soziala lortzea.

TEKak energia-pobrezia borrokatu nahi duen ereduak izanik, guztiz inkohherentea da etxe horiek egoera hori gal dezaten eskatzea. Beraz, hau proposatzen da:

**-Bonu soziala duten familiek, %100 berriztagarria den eta autokontsumoa (banakakoa zein kolektiboa) duten hornidura aldatzen bada, urteko hobaria lortzea OHZn, bonu sozialak urtean sortzen dituen aurrezki elektrikoaren baliokidea. Hau da: urtean 150€**

**Onuradun izateko ondorengo baldintza bete beharko da: “ bonu sozialaren onuradun izatea”.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

4.- 1 eta 3 ataletan ETA 2 eta 4 ataletan araututako hobariak ez dira bateragarriak. Hobariak ezingo dira metatu, eta ehunekorik handiena aitortzen duena aplikatuko da.

### 2. EKONOMI IHARDUEREN GAINEKO ZERGA

Koefizientea gehienez 2,2 arte igo daiteke. Topean dago, beraz ezin liteke igo.

#### KOEFIZIENTEA MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

Ez dago hobaririk onartuta.

### 3. TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

#### 2023 URTEAN INDARREAN EGON DIREN HOBARIAK

- Ibilgailu historikoak % 50.
- Zerga-kuotaren %75eko hobaria, ibilgailuen motorraren ezaugarrien arabera eta horiek ingurugiroan duten eraginaren arabera
- Hobari hau %95ekoa izango da, motor elektrikoa edo gasezkoa duten ibilgailuen kasuan

#### HOBARI HAUEK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

#### 2023 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK.

Gaur egun % 1,73 koefizientea aplikatzen da

#### TARIFAK 1,77 ra IGOTZEA PROPOSATZEN DA

Ibilgailu mota eta potentzia	Euroak	Koefizientea	Proposamena
<b>A)Turismoak:</b>			
9 zaldi fiskal bitartekoak	31,81	%1,77	32,55
9 - 11,99 zaldi f. bitartekoak	63,63	%1,77	65,10
12 - 13,99 zaldi f. bitartekoak	106,05	%1,77	108,50
14 - 15,99 zaldi f.bitartekoak	148,47	%1,77	151,90



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

16 - 19,99 zaldi f.bitartekoak	190,89	%1,77	195,30
20 zaldi fiskaletik gorakoak	233,31	%1,77	238,70
<b>B) Autobusak:</b>			
21 plaza bitartekoak	144,11	%1,77	147,44
21 - 50 plaza bitartekoak	205,25	%1,77	209,99
50 plazatik gorakoak	256,56	%1,77	262,49
<b>C) Kamioiak:</b>			
1.000 kg. Bitarteko karga erabilgarria	73,14	%1,77	74,83
1.000 - 2.999 kg. bitarteko	144,11	%1,77	147,44
2.999 - 9.999 kg. Bitarteko	205,25	%1,77	209,99
9.999 kg-tik gorako	256,56	%1,77	262,49
<b>D) Traktoreak:</b>			
16 zaldi fiskal bitartekoak	30,57	%1,77	31,27
16 - 25 zaldi f. bitartekoak	48,04	%1,77	49,15
25 zaldi fiskaletik gorakoak	144,11	%1,77	147,44
<b>E) Trakzio mekanikoko ibilgailuen atoi eta erdi-atoiak:</b>			
750-1000 kg. bitarteko karga erabilgarria	30,57	%1,77	31,27
1.000 - 2.999 kg. Bitarteko k.e.	48,04	%1,77	49,15
2.999 kg.tik gorako karga e	144,11	%1,77	147,44
<b>F) Gainerako ibilgailuak:</b>			
Ziklomotoreak	7,80	%1,77	7,98
Motozikletak: 125 z.k. bitartekoak	7,80	%1,77	7,98
Motozikletak 125 - 250 z.k. bitartek	13,36	%1,77	13,66
Motozikletak 250 - 500 z.k. bitartek	26,73	%1,77	27,35
Motozikletak 500 - 1.000 z.k. bitartek	53,46	%1,77	54,69
Motozikletak 1.000 cctik gora	106,90	%1,77	109,37

### 4. ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA

#### Ondorengo hobaria mantentzea proposatzen da:

% 50-eko hobaria, eraikuntza, instalazio eta obrek ezgaitasun bat duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean.

Hobari hau aplikatzeko ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- Ezgaitasun kalifikazioa edukitzea.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- Mugikortasun baremoan, gutxienez 7 puntu izatea.
- Kuota zehazteko, obraren aurrekontu osoa hartuko da kontuan, baldin eta obraren helburu bakarra eraikina ezgaitasunen bat duen pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzea bada.
- Obrek eraikina berritzeko helburua badute, baina aurrekontuan beste partida batzuk ere jasotzen badira ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzeko egokitzapenez gain, dagokion partidak bakarrik hartuko dira kontuan hobari eskubidea duen kuota zehazteko. Horretarako, nahitaezkoa izango da aurrekontua ondo bereizita aurkeztea helburu hori duten obren zatian.

### **2023 URTEAN INDARREAN EGON DIREN TARIFAK**

Baserrien berrikuntza: % 2,50. Onuradun izateko nekazaritza ustia lekuen erroldatze agiria aurkeztu beharko du.

Besteak:

- |                                                |        |
|------------------------------------------------|--------|
| a) 60.000,00 euro arteko aurrekontua dutenak:  | %4,50. |
| b) 60.000,01 euro baino gehiagoko aurrekontua: | %5,00. |

### **TIPOAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA**

#### **5. HIRILURREN BALIOEN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA**


*Hiri izaerako lursailen balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzeko Ordenantza Fiskala.*

#### I. KAPITULUA

#### IZAERA ETA ZERGAGAIA

##### *1. artikulua.*

Gipuzkoako Toki Ogasunak Arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araueko 3. Sekzioko III. Atalburuan eta zergari buruzko 16/1989 berariazko araeuan xedatutakoaz, zein 7/2021 Foru Dekretu-Araua, azaroaren 16koa,



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara egokitzekoaz bat, hiri-izaerako lursailen balio gehikuntzaren gaineko zerga arautu eta galdatzen da.

### *2. artikulua.*

Hiri-lur batek zerga-aldian irabazi duen balioa izango da zerga-gaia, hau da, hiri-lur horren jabetza edozein titulu erabiliz eskuz aldatu edo jabaria mugatzen duen gauzekiko eskubideren bat eratu edota eskuz aldatu bitartean irabazitakoa. Hartarako, aski izango da hiri-lur kontsideratzea egotea Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarako, eta berdin izango dio katastroan edo katastroko zergaren erroldan hala jasota edo jaso gabe egotea.

### *3. artikulua.*


1. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan landa-lur jota dagoen lurrak irabazten duen balioak ez du zerga hau ordaindu beharrik izango.

2. Jarduera atalen batean sartu gabe egonik Elkarteen gaineko Zergaren araudi berezia ezartzen zaien hiri-lurrek ere ez dute zerga honenik ordaindu beharrik izango eskualdatzea eragiketa hauetako baten ondorioz egiten bada: batzea, banatzea, aktibo ekartzea, balore trukatzea eta aktibo nahiz pasibo lagatze globalak egitea. Dena dela, ordaindu egin behar da 7/1996 Foru Arauko 101 artikulua edo hura aldatzeko emandako beste arauen baten babesean egindako lur ekarpenak egitekoan.

3. Ezkontideek ezkontza-sozietateari egindako ondasun- eta eskubide-ekarpenak, haien alde eta ordainetan egindako esleipenak eta ezkontideei beren hartzeko komunak ordainetan egindako eskualdaketa ez daude zerga honen mende.

Xedapen bera aplikatuko da, aurreko paragrafoan aipatutako kasu berberetan, izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako izatezko bikoteko kideek egiten dituzten ekarpen, esleipen eta eskualdatzeei dagokienez.

Era berean, ez da zergaren mende egongo honako kasu hauetan: ezkontideen artean, maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

izatezko bikoteko kideen artean edo seme-alaben alde ondasun higiezinak eskualdatzen direnean, ezkontzako deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-kasuetan edo izatezko bikotearen azkentze-kasuetan epaiak betetzearen ondorioz, ezkontzako erregimen ekonomikoa edo ondare-araubide ekonomikoa edozein dela ere.

4. Lurren eskualdaketak ez dira egongo zergari lotuta eskualdaketa eta eskurapen datetan haien balioen artean dagoen diferentzia kalkulatzeko balio gehikuntzarik ez dela izan egiaztatzen denean.

Horretarako, balio gehikuntzarik ez dela izan frogatu nahi duen pertsona edo entitate interesdunak eskualdaketa aitortu beharko du, eta eskualdaketa eta eskurapena dokumentatzen dituzten tituluak aurkeztu ere bai.


Eskualdaketan balio gehikuntzarik ez dela izan egiaztatzeko, honako hau hartuko da lurraren eskualdaketa edo eskurapen balioetat kasu bakoitzean: eragiketa dokumentatzen duen tituluan ageri dena edo, kasua bada, Zerga Administrazioak egiaztatutakoa. Ondorio horietarako, eragiketa horietan izandako gastuak edo aplikatutako tributuak ezingo dira konputatu, eta ez da inolako eguneratzerik izango denbora igarotzeagatik.

Higiezinaren eskualdaketan lurzorua eta eraikuntza sartzen direnean, lurzoruaren balioetat hartuko da zergaren sortzapen egunean lurraren katastro balioak katastro balio osoarekiko duen proportzioa aplikatuta ateratzen dena, eta proportzio hori aplikatuko zaie bai eskualdaketa balioari eta, hala badagokio, baita eskurapen balioari ere.

Eskurapena edo eskualdaketa kostu gabekoa izan bada, aurreko paragrafoetako erregelak izango dira aplikagarriak, eta, hala dagokionean, gorago aipatutako bi balio konparagarrietatik lehenengotzat oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan aitortutakoa hartuko da.

Apartatu honetan aipatutako higiezinaren ondorengo eskualdaketan, lurren balio gehikuntza zenbat urtetan sortu den konputatzeko, higiezina eskuratu aurreko denbora ez da kontuan hartuko. Ondasun higiezinaren ekarpen edo eskualdaketei ez zaie aplikatuko paragrafo honetan xedatutakoa zergari lotuta ez daudenean.





**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

## II. KAPITULUA

### SALBUESPENAK

#### 4. artikulua.

1. Balio gehikuntzak zerga honetatik salbuetsiko dira egintza hauen ondorio direnean:

a) Zortasun eskubideak eratzea eta eskualdatzea.

b) Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarenak, 4.2.e) artikuluan aurreikusten duen salbuespena aplikagarri duten ondasunak eskualdatzea, baldin eta haien jabeek edo ondasun eskubideen titularrek frogaturik uzten badute ondasun higiezin horiek artatu, hobetu edo birgaitzeko obrak euren kontura egin dituztela.

Salbuspen honen eraginkortasunaren baldintza artapen, hobekuntza edo birgaikuntza obrak udal baimenari benetan lotzea da. Era berean, beharrezkoa izango da aipatu lanak ondasuna inorenaganatu aurreko lehendabiziko 5 urteetan gauzatzea.


Ondorio horietarako, eraikinen birgaikuntza obrak egitura, fatxada edo estalkinen eta beste antzekoen tinkotze eta trataeraren bitartez eraikin horiek berreraikitzeke helburua dutenak dira, beti ere obre horien balio kostu balio katastralaren %25 baino handiagoa bada.

2. Era berean, balio gehikuntzak salbuetsita egongo dira, zerga ordaintzera behartuta dauden pertsona edo entitateak ondoko hauek direnean:

a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta, orobat, lurralde administrazio publiko horietako organismo autonomoak nahiz antzeko izaera duten zuzenbide publikoko entitateak.

b) Larraulgo udalerrria eta udalerrri honen parte diren edo izan daitezkeen gainerako udal entitateak, eta lurralde administrazio publiko horietako organismo autonomoak nahiz antzeko izaera duten zuzenbide publikoko entitateak.

c) Ongintzako edo ongintza- irakaskuntzako kalifikazioa duten erakundeak.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- d) Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileak eta indarrean dagoen legeriaren arabera eraturako gizarte aurreikuspeneko mutualitateak.
- e) Emakida administratibo itzulgarrien titularrak, emakidei atxikitako lurrei dagokienez.
- f) Gurutze Gorria eta horrekin pareka daitezkeen beste entitateak, erregelamenduz zehaztuko direnak.
- g) Salbuespena nazioarteko itun edo hitzarmenetan aitortua duten pertsona edo entitateak.

### III. KAPITULUA

#### SUBJEKTU PASIBOAK

##### *5. artikulua.*


##### 1. Hauek izango dira zergadun izaerako subjektu pasiboak:

Lurrak eskualdatzekoan edota jabaria mugatzen duten gauzekiko eskubideak eratzekoan, irabazizkoak izanez gero, lurra edo gauzekiko eskubidea jasotzen duen pertsona fisikoa, juridikoa, oinordekoa, jabetza komunitatea nahiz beste edozein erakunde, izaera juridikorik izan ez arren unitate ekonomiko bat edo ondare banandu bat eratzen duena baldin bada.

Lurrak eskualdatzekoan edota jabaria mugatzen duten gauzekiko eskubideak eratzekoan, kostu-bidezkoak izanez gero, lurra edo gauzekiko eskubidea ematen duen pertsona fisikoa, juridikoa, oinordekoa, jabetza komunitatea nahiz beste edozein erakunde, izaera juridikorik ezan ez arren unitate ekonomiko bat edo ondare banandu bat eratzen duena baldin bada.

##### 2. Hauek izango dira zergadunaren ordezkotako subjektu pasiboak:

Zergaduna Espainian bizi ez den pertsona fisikoren bat izanez gero, lurra edo gauzekiko eskubidea hartzen duen pertsona fisikoa, juridikoa, oinordekoa, jabetza komunitatea nahiz beste edozein erakunde, izaera juridikorik izan ez arren unitate ekonomiko bat edo ondare banandu bat eratzen duena baldin bada, izango da zergadunaren ordezkotako subjektu pasibo.



**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

#### IV. KAPITULUA

#### OINARRI ZERGAGARRIA

##### *6. artikulua.*

1. Zerga honen zerga oinarria lurren balio gehikuntza da, hain zuzen ere, sortzapenaren unean agerian jarri eta gehienez ere hogeituro urteko epean izandakoa. Haren zenbatekoa eragiketa honen emaitza izango da, artikulua honen 4. apartatua xedatutakoa eragotzi gabe: sortzapenaren unean lurrarri kalkulatu zaion balioa bider 3. apartatuaren arabera sorreraldiari dagokion koefizientea.

2. Sortzapenaren unean lurak zer balio duen zehazteko, erregela hauek aplikatuko dira:

a) Lurren eskualdaketetan, sortzapenaren unean duten balioa ondasun higiezinaren gaineko zergaren ondorioetarako une horretantxe dutena izango da.

Hala ere, balio hori balio ponentzia baten ondorio bada, eta ponentzia horretan ez badira islatzen hura onartu ondoren onartu diren planeamendu aldaketak, zilegi izango da zerga honen behin-behineko likidazio bat egitea balio ponentzia horretatik abiatuta. Horrelako kasuetan, behin betiko likidazioan aplikatuko den balioa kasuan kasuko balio ponentziaren aldaketan edo balioen berrikuspenean xedatutakoaren arabera ateratzen dena izango da, betiere sortzapen data erreferentzia hartuta. Data hori ez badator bat katastro balio berrien eragin datarekin, balio horiek zuzenduko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontuen foru arauetan ezartzen diren eguneratze koefizienteak aplikatuta.

Gertatzen bada kasuan kasuko lurak, hiri izaerakoa izanik ere, zergaren sortzapenaren unean oraindik ez daukala zehaztuta inolako katastro baliorik, udalak katastro balio hori finkatzen denean egingo du likidazioa, sortzapenaren unean dagoen balioa aintzat hartuta.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

b) Jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealen eraketan eta eskualdaketan, artikuluko honen 3. apartatuan aipatutako urteko portzentajeak aplikatuko dira kontuan izanik aurreko a) paragrafoan definitutako baliotik zer zati dagokien aipatu diren eskubideei. Eskubide horien balioa ondare eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren ondorioetarako ezarritako arauak aplikatuz kalkulatu da.

c) Eraikin edo lursail baten gainean solairu bat edo gehiago jasotzeko edo lur azpian eraikitzeko eskubidearen eraketan edo eskualdaketan –lurrazal eskubide erreal bat izan gabe ere–, artikuluko honen 3. apartatuan aipatutako urteko portzentajeak aurreko a) paragrafoan definitutako balioaren gainean aplikatuko dira, baina, kasu honetan, kontuan izanik balio horretatik zer zati dagokion eskualdaketaren eskrituran finkatutako proportzionaltasun moduluari edo, halakorik ezean, lur gainean edo lur azpian eraikiko diren solairuen azalera edo bolumenaren eta eraikitako azalera edo bolumen osoaren arteko proportzioari horiek behin eraiki ondoren.

d) Nahitaezko desjabetzeen kasuan, artikuluko honen 3. apartatuan aipatutako urteko portzentajeak lurraren balio justuaren zatiari aplikatuko zaizkio, salbu eta aurreko 2. apartatuko a) paragrafoan definitutako balioa txikiagoa bada, kasu horretan, azken hori hartuko baita, ez balio justua.

3. Balio gehikuntzaren sorreraldia gehikuntza hori agerian jartzeko igarotako urte kopurua izango da.

Eragiketak zergari lotuta ez dauden kasuetan, eta, betiere, foru arau bidez besterik esaten ez bada, lurraren geroko eskualdaketa batean balio gehikuntzaren sorreraldia zenbatekoa izan den kalkulatzeko, eskurapen datatzat zergaren azken sortzapena gertatu zen data hartuko da aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako.

Igarotako urte kopuruaren konputuan urte osoak hartuko dira, hau da, urte zatikiak aintzat hartu gabe. Sorreraldia urtebetetik beherakoa bada, urteko koefizientea hainbanatuko da hilabete osoen kopurua kontuan hartuta, hau da, hilabete zatikiak aintzat hartu gabe.

Sortzapenaren unean lurra duen balioari (aurreko apartatuetan xedatu da nola kalkulatu balio hori) balio gehikuntzaren sorreraldi bakoitzerako indarrean



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

dagoen gehieneko koefizientea aplikatuko zaio, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauaren 4.3 artikulua ezarritakoari jarraituz.

Aipatutako xedapenean aurreikusitako gehieneko koefizienteak eguneratuz gero, alkateari ahalmena ematen zaio aplikagarriak diren koefiziente berriak ebazpen bidez argitaratzeko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, baita udalaren web orrian eta iragarki taulan ere.

4. Subjektu pasiboak eskaturik, zergaren foru arauaren 1. artikuluko 3. apartatuan ezarritako prozedurari jarraituz, egiaztatzen bada balio gehikuntzaren zenbatekoa txikiagoa dela artikuluko honetako aurreko apartatuetan xedatutakoaren arabera zehaztutako zerga oinarriaren zenbatekoa baino, balio gehikuntza horren zenbatekoa hartuko da zerga oinarritzat.

### *7. artikulua.*

Lursailen eskualdaketetan, Zerga Administrazioak, Zergen Foru Arau Orokorrak 52. artikuluan aipatutako merkatuko batez besteko prezioen arabera, ondasun higiezin hiritarren benetako balioa egiaztatu ondoren ateratako lurzoruen balioetik eratortzen dena izango da beraien balioa.

## V. KAPITULUA

### ZERGA KUOTA


### *8. artikulua.*

Zerga honen kuota lortzeko, oinarri zergagarriari eraskinera bildutako karga-tipoa ezarri beharko zaio.

## VI. KAPITULUA

### ZERGAREN SORTZAPENA

1. Zerga noiz ordaindu:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Lursailaren jabetza eskualdatzean, bai kostubidezko gisa bai dohainezko gisa, bizien artean edo heriotza dela-eta, eskualdatzen den egunean.

Jabariaren gozamendu mugatzailearen edozein eskubide erreal eratu edo eskualdatzen denean, eraketa edo eskualdaketa gauzatzen den egunean.

Arestian xedatutakoaren eraginetarako, honako hauek hartuko dira eskualdatze-eguntzat:

Bizien arteko egintza edo kontratutan agiri publikoaz ematen denekoa eta, agiri pribatuak izatekotan, hauek errolda publikoan jaso edo inskribatzen direnekoa edo duen lanbidea dela bitarte herri-funtzionario bati ematen zaizkion eguna.

Heriotzagatiko eskualdaketatik, kausatzailea hil den eguna.

2. Ebazpen irmo bidez egintzaren edo lursailaren eskualdaketa kontratu zehatzatzailearen edo horren gaineko gozamen-eskubide errealaren eraketa edo eskualdaketa deuseztapena, deuseztasuna edo ebazpena judizial edo administratiboki adierazi edo aitortzen denean, sujetu pasiboak ordaindutako zergaren berriro hartzeko eskubidea izango du, non eta aipatu egintza edo kontratuak irabazizko eraginik ez duen eta ebazpena irmo geratu zenetik bost urteko epean itzulketa erreklamatzeko badu, irabazizko eraginik badela ulertuko da, interesatuek Kode Zibileko 1295 artikulua aipatzen dituen elkarrekiko itzulketak egin behar dituztela bidezkotzen ez denean. Egintza edo kontratuak irabazizko eraginik sortu ezean ere, deuseztapena edo ebazpena Zergaren sujetu pasiboak eginbeharrak ez betetzegatik deklaratu balitz, ez da inolako itzulketarako eskubiderik izango.

3. Kontratua efekturik gabe geratuko balitz kontratua egin duten alderdiek elkarrekin hartutako akordioaz, ez da bidezko izango ordaindutako zergaren itzulketa, tributuzko egintza berriztat hartuko delarik. Elkarren arteko akordiotzat adiskidetze egintzan bat etortzea eta demandaren menperatze soila hartuko dira.

4. Bitarteko baldintzarik duten egintza edo kontratuetan kalifikazioa Kode Zibilean bildutako aginduen arabera egingo da. Esekipenezkoa izatekotan, zerga ez da likidatuko agindua bete artean. Baldintza ebazpenezkoa balitz, zerga galdatu baldintza betetakoa egingo da, aurreko ataleko arauaren erara bidezko itzulketa egiteko mugakizunaz.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### VII. KAPITULUA

#### HOBARIAK

##### *9. artikulua.*

1. Lurrak eskualdatzean eta jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealak eskualdatzean edo eratzean, heriotzaren ondorioz irabazpidez egiten badira, kuota osoaren %95eko hobaria izango dute ezkontideek, izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoteko kideek, lehen graduko zuzeneko ondorengoek eta adoptatuek, eskualdatutako ondasun edo eskubide hori jaraunsle horietakoren baten ohiko etxe bizitza denean. Hobari hau aplikatzeko, ezinbestekoa izango da zerga likidatzeko aitorpena horretarako ezarritako legezko epea ren barruan aurkeztea.

### VIII. KAPITULUA

#### KUDEAKETA ETA LIKIDAZIOA

##### *10. artikulua.*

Sujeto pasiboen obligaziozko egitekoa da aitorpena Larraulgo Udalak onarturiko imprimaki normalduan aurkeztea.


##### *11. artikulua.*

1. Aitorpenak sujetu pasiboak berak sinatuko ditu, zuzenean nahiz Gestoria edo Notaria bidez aurkeztu ahal izango dituelarik.

2. Salbuespen eta hobarietarako eskubidea egiaztatzen duten agiriekin batera, zerga ordaindu beharra sortarazten duen agiri publikoaren zein egintza judicial, administratibo edo pribatuaren fotokopia aurkeztu beharko da.

3. Aitorpen emaitza den kuota sartzeko, ondoko epe hauek erabilirik egin beharko da:

«Intervivos» izeneko eskualdaketetan, gauzako eskubideak eraikitzean eta dohaintzetan, sortzapenez geroztiko hogeitamar lanegunen barruan.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

«Mortis causa» eskualdaketetan sei hilabeteko epean, kausatzailearen heriotza-egunetik aurrera. Sujeto pasiboak sei hilabeteon barruan hala eskatuz gero, urtebetera arte luzatu ahal izango da.

Autolikidaziorako eta sarrera egiteko luzapena lortuz gero, hura egiten den egunera arteko berandutza-interesa ordaindu beharko da.

### *12. artikulua.*

1. Deklarazioak beti ere sujetu pasibo bakoitzak eskuratu eta udalerrri honetan dautzan ondasun higiezin guztiengatik edota horien gainean eratutako eskubide guztiengatik egin behar dira, kausadun guztiak sartuko direlarik.

2. Sujeto pasiboak Udaleko Zerga Administrazioari deklarazio-likidazioaren egikaritze teknikoak eskatu ahal izango dio. Horretarako, Udalak xede horrekin prestatu eta Udalean bertan eskura daitekeen eredu onartua behar bezala baterik aurkeztuko du Udalerrian datzan edozein Gestoria edo Notariatuan.

### *13. artikulua.*

Udalak egingo dituen likidazioak osorik jakinaraziko zaizkio sujetu pasibo bakoitzari, sarerra egiteko epea eta erabil daitezkeen errekurtsioak adierazirik.


### *14. artikulua.*

Udalak interesatuei Zergaren likidazioa burutzeko beharrezkotzat jotako beste dokumentuak galdatu ahal izango dizkie hogeita hamar eguneko epean, interesatuaren eskaeraz beste hamabost egunez luza daitekeelarik. Aipatu epeen barruan formulaturiko errekerimenduak erantzuten ez dutenak zergazko infrakzio eta zehapenak jasan beharko dituzte, aipatu agiriak aitortpena egiaztatzeko beharrezkoak diren heinean. Agiriak interesatuak bere onurarako alegatutako zirkunstantziak frogatzeko bidea baino ez badira, errekerimendua ez betetzeak likidazioa gauzatzea izango du ondorioztat, ekarriko alegatu eta zuritu gabeko zirkunstantziak kontuan izan gabe.

## IX. KAPITULUA

### LAGUNTZEKO BEHARRA





## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### 15. artikulua.

12. artikuluan xedatutakoa dena delarik ere, honako hauek ere egitate zergagarria Udal Administrazioari jakinarazi behartuta egongo dira, sujeto pasiboentzako epe beretan:

a) Ordenantza Fiskal honetako 6. artikuluko a) letrara bilduriko suposamenduetan, bizien arteko negozio juridikoan sortuz gero, emalea edo eskubide erreala eratu edo eskualdatzen duen pertsona.

b) Aipaturiko 5. artikuluko b) letran bilduriko suposamenduetan, hartzailea edo eskubide erreala eratu edo eskualdatzearen onuraduna den pertsona.

### 16. artikulua.

Halaber, notarioak Udalari haiek baimendutako agiri guztien zerrenda edo horien indize biltzailea igortzera behartuta egongo dira berezko hiruhileko bakoitzeko lehen hamabostaldiaren barruan, agiriekin udalerrian egin eta zerga honen eremukoak diren egitate, egintza edo negozioak biltzen badituzte, azken borondatezko egintzak salbuetsirik. Epe beraren barruan, halaber, sinadurak ezagutu edo legeztatzeke aurkeztu zaizkien egitate, egintza edo negozio juridiko berak biltzen dituzten agiri pribatuen zerrenda igortzera ere behartuta egongo dira. Artikulu honetan aitzineurritutakoa Gipuzkoako Zergetako Foru Arau Orokorrean ezarritako lankidetzeta-betebehar orokorraren kalterik gabe.


### *Xedapen gehigarria.*

8.1. artikuluan xedatutakoaren eraginetarako eta Ondarezko Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga arautzen duen Foru Arauak indarrean dirauen artean, ondoko erregelak bete beharko dira:

1.

a) Aldi baterako usufuktua ondasunen balioaren araberakoa izango da, urtebeteko aldi bakoitzeko %2 kontuan hartuta, %70 gainditu gabe.

b) Biziarreko usufuktuetan balioa ondasunen guztizko balioaren %70aren berdina dela iritziko da usufuktudunak 20 urte baino gutxiago izatekotan, adina gehitzen den heinean urte bakoitzeko %1 gutxiagotuz, guztizko balioaren %10 delarik muga.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

c) Pertsona juridiko baten alde eraturako usufuktua, 30 urte baino goragoko eperik edo denbora zehaztugaberako ezarriz gero, baldintza suntsiarazleari loturiko jabego osoko eskualdaketatzat joko da zergabidean.

2. Jabetza soileko eskubidearen balioa usufuktuaren balioaren eta ondasunen guztizko balioaren arteko desberdintasunaren arabera neurtuko da. Era berean, aldi baterako diren biziarteko usufuktuetan, jabetza soila aurreko lehen zenbakiko arauetatik baliorik gutxiena damaiona ezarririk balioetsiko da.


3. Erabiltzeko eta bizitzeko eskubide errealen balioa lortzeko, kasuan kasu, aldi baterako edo biziarteko usufuktuak balioesteko arauak jasan zituzten ondasunen balioaren %75 kalkulatu beharko da.

### ERANSKINA

I. Balioen gehikuntza zehazteko urteko portzentaien koadroa.

%

Urtebetetik behera	0,15
Urte bat	0,15
2 urte	0,14
3 urte	0,15
4 urte	0,17
5 urte	0,18
6 urte	0,19
7 urte	0,18
8 urte	0,15
9 urte	0,12
10 urte	0,10
11 urte	0,09
12 urte	0,09
13 urte	0,09
14 urte	0,09



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

15 urte	0,10
16 urte	0,13
17 urte	0,17
18 urte	0,23
19 urte	0,29
20 urte edo gehiago	0,45

II. Zerga tipoa.

Zerga tipoa: %10,00.

## 2. TASAK

### 1. ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK

#### 2023 URTEAN INDARREAN DAUDEN TARIFAK

##### 1.1. UR-HORNIDURAREN ZERBITZUA:

Ur horniketa: Ur kontsumoa	2023	2024
<b>1.1.1.Etxez-etxeko ur hornidura</b>		
30m <sup>3</sup> .bitartekoa, hiru hilabetea	18,00€	19,00€
31m <sup>3</sup> tik goragokoa, hiru hilabetea	0,74€/m <sup>3</sup> bakoitza	0,76€/m <sup>3</sup> bakoitza
<b>1.2. Azpiegitura kanona: Guztientzat, hiruhilabeteko</b>	12,00€	13,00€
<b>1.3.Udal azpiegituren mantentzea</b> Guztientzat, hiruhilabeteko	10,00 €	11,00 €
<b>1.4.- Hasierako engantxea etxe berrietan, etxeko</b>	120,00€	123,00€
<b>1.5.- Hobariak:</b>		



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gizarte ongizateak proposatuak ikus I. eranskina.

### 1.2. ZABOR BILKETA ZERBITZUA:

ZABORRAK	2023	2024
1.Etxez-etxeko bilketa, hiruhileko	34€	35€
2. Industria, komertzio eta taberna bilketa, hiruhileko	48€	50€
5. Hobariak: Gizarte ongizateak proposatuak ikus I. eranskina		

### 1.3. HIRIGINTZ BAIMENAK ETA HIRIGINTZ DOKUMENTUAK IZAPIDATZEAGATIK

TASAK IGOTZEA PROPOSATZEN DA:




## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

DOKUMENTU ADMINISTRATIBOEN IGORPENA	Euroak
1.Hirigintza kontsulta	82€
2. Segregazio baimena	82€
3. Lehen erabilera baimena	108€/etxeko
4. Edozein P.E.R.I. , Zati Plana, Urbanizazio proiektu, konpentsazio proiektu	1.642€
5. 60.000 euro baino gutxiagoko aurrekontua duten obratako lizentzien izapidetzea	31€
6. 60.000 euro baino gehiagoko aurrekontua duten obratako lizentzien izapidetzea	52€
7. Jarduera baimenak: - Klasifikatutako jarduera: -Klasifikatutako jardueraren aurretiazko komunikazioa:.	113,00 € 82,00 €
8. Baimenik gabeko edo ezkutuko obra baimenaren legeztapena: Obra lizentzia emateagatik ateratako tasaren %200.	

### 1.4.-HILETA ZERBITZUA

TASAK IGOTZEA PROPOSATZEN DA:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HILETA ZERBITZUA	Euroak
1. Hezurtegiaren emakida: Behin-betiko emakida, (plaka eta inskripzioa kanpo)	200€
2. Nitxoaren emakida: -15 urteko epean (plaka eta inskripzioa kanpo) -5 urte bitarteko luzapenagatik	185€ 128€
3. Lurperatze tasa nitxoan	50

\* Lurperatzea edo hezurrak atzeratzea kanpoko enpresa batek egiten badu, hauek fakturatutako kostua ordaindu beharko da.

### 1.5. KIROL INSTALAZIOEN ERABILERA:

KIROL INSTALAZIOAK	Euroak
1. Kirol instalakuntzen erabilera	3€/orduko

### AIPATURIKO TASA MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

### 1.6. MUSEO ETNOGRAFIKORA BISITAK:

	Euroak
Larraulgo museo etnografikora bisitak	2€/pertsonako

### AIPATURIKO TASAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA

### 1.7. HAURREK ETA GAZTEAK SUSTATZEKO SAILAREN ZERBITZU-EMAKIDA ETA JARDURA GAUZATZEA:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

JARDUERAK	Euroak
1.Euskal Dantza: -Lehenengo haurra -2. Eta 3. haurrak	15€/ hileko 12€/ hileko
2.Esku pilota -Lehenengo haurra -2. Eta 3. haurrak	15€/ hileko 12€/ hileko
<b>TASA BERRI HAU ONESTEA PROPOSATZEN DA:</b>  3.English friday -Lehenengo haurra -2. Eta 3. haurrak	15€/ hileko 12€/ hileko
4.Ikastaro desberdinak (Kostearen arabera finkatuko dira, behin ere ezingo du izan, kostea baino handiagoa)	
-Dantza, musika, antzerki etab. ikuskizunak	10,00€ gehienez

### **JARDUERAREN BESTE TASAK MANTENTZEA PROPOSATZEN DA**

#### **2. UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TADAK**

Tasa hauen barnean ondorengo kontzeptuak daude aurreikusiak eta onartuak:

##### **2.1. UDAL KALEETAKO ZOLUA, HEGALKINA ETA LURRAZPIA PRIBATIBOKI ERABILTZEA EDO BEREZIKI APROBETXATZEA, HORNIDURA ZERBITZUA USTIATZEKO ENPRESEN ALDE**

Udal kaleetako zolua, hegalkina eta lurrazpia hornidura zerbitzua ustiatzeko enpresen alde pribatiboki erabiltzeari edo bereziki aprobetxatzeari dagokion prezioa, zerbitzu horiek gehientsuenengan edo biztanlegoaren zati garrantzitsuarengan eragina dutenean, enpresa horiek udalerrian urtero lotzen duten fakturazioko diru sarrera gordinen %1,5ekoa izango da.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

## 3. KONTRIBUZIO BEREZIETAKO ORDENANTZA FISKAL OROKORRA

### I. XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikulua

Udal honek, Toki Ogasunak erregulatzeko dituen Lurralde Historikoko Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera, obrak egin edo udal zerbitzuak ezarri nahiz hedatzeagatiko Kontribuzio Berezieta Ordenantza Orokorra onesten du.

#### 2. artikulua

Ordenantza udal barruti osoan aplikatzen da.

### II. EGITATE EZARGARRIA

#### 3. Artikulua

Udal obrak burutu edo Udalak udal zerbitzu publikoak ezarri nahiz hedatzearen ondorioz sujetu pasiboak hobaria edo bere ondasunen balioaren gehikuntza lortzea dugu kontribuzio Berezien egitate ezargaria.

#### 4. artikulua

1. Hurrengo hauek hartuko dira udal obra eta zerbitzutat:

a) Bere eskumenen esparruan, egotzirik dituen xedeak betetzeko Udalak egiten dituenak, ondare ondasunen jabe gisa egiten dituztenak salbu.

b) Bestelako Entitate Publikoek egotzi edo delegatu dizkiolako Udalak egiten dituenak eta beste lan eta zerbitzuak, legeriaren arabera horien titulartasuna onartu baldin badu.


c) Bestelako Entitate Publikoek nahiz horien kontzesiodunek Udalaren ekarpen ekonomikoaz burutzen dituztenak.

2. Aurreko zenbakiko a) hizkian sartutakoek ez dute udal obra edo zerbitzu kontsiderazioa galduko nahiz eta kapital sozial osoa Udalarena duten Organismo Autonomo edo Merkataritza Sozietateek, udal ekarpena duten kontzesiodunek edo zergadunen administrazio elkarteek burutuak izan.

#### 5. artikulua

Kontribuzio bereziengatik bildutako zenbatekoak, haiek exijitzeko arrazoi izan zen obra edo zerbitzuaren gastuak ordaintzeko bakarrik erabili ahal izango dira.





**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

### **III. SUBJEKTU PASIBOA**

#### **6. artikulua**

1. Zerga ordaintzeko beharra sortzen duten obren burutzapenez edo udal zerbitzuen ezarpen nahiz hedaketaz onura berezia ateratzen duten pertsona fisiko eta juridikoak eta Lurralde Historikoko Foru Tributu Arau Orokorraren 33. artikulua aitutzen dituen Entitateak dira kontribuzio berezietako subjeto pasiboak.

2. Hurrengo hauek onura berezia ateratzen dutela kontsideratuko da:

- a) Ondasun higieziinei dagozkien obrak egin edo zerbitzuak ezarri nahiz hedatzeagatiko kontribuzio berezietan, ondasun higiezinen jabeak.
- b) Enpresa ustiapenen ondoriozko obrak egin edo zerbitzuak ezarri nahiz hedatzeagatiko kontribuzio berezietan, enpresetako tituludun diren pertsona edo entitateak.
- c) Suteen itzalketa zerbitzuak hedatu edo hobetzeagatiko kontribuzio berezietan, erasandako ondasunen jabeek gain, udalerraren barruan beren iharduerak alor horretan burutzen dituzten aseguru konpainiak.
- d) Lurrazpiko bideak egiteagatiko kontribuzio berezietan, geroago erabiliko dituzten enpresa hornitzaileak.

3. Jabetza horizontaleko errejimeneke kasuetan, etxejabeen komunitateko ordezkariak, etxejabeen izena eta komunitatearekiko partehartze-koefizientearen berri emango dio Udal Administrazioari kuota indibidualak igorri ahal izateko. Horrela egingo ez balitz kuota bakarra igortzea onartzen dela ulertuko da, elkarte bera arduratuko delarik ondorengo banaketaz.


### **IV. OINARRI EZARGARRIA**

#### **7. artikulua**

1) Kontribuzio berezietako oinarri ezargarrria, gehienez ere, obra egin edo zerbitzuak ezarri nahiz hedatzeagatik Udalak jasan behar duen kostuaren %90a izango da. Ordenamendu erabakia hartzerakoan, ezar daitekeen portzentaje finkatuko du, kasu bakoitzean.

2) Aipatu kostua hurrengo kontzeptuek osotuko dute:

a) Peritu lan, proiektuen idazketako lanen eta lan, plangintza eta programa teknikoen zuzendaritza lanen benetako kostua.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

b) Egin beharreko obren edo zerbitzuen ezarketa nahiz hedatze lanen zenbatekoa.

c) Obra nahiz zerbitzuen etengabe okupatu beharko lurren balioa salbu, erabilera publikoko ondunak, Udalari doan eta obligazioz lagaturiko lurak edo legerian ezarritako baldintzetan lagaturiko ondasun higiezinak direnean.

d) Eraikuntzak erautsi eta landaketa, obra edo instalazioak berrizetik etorritako indemnizazioak hala nola birrindu nahiz okupatu beharreko ondasunen errentariengandik etorritakoak.

e) Obra nahiz zerbitzuetan inbertituriko kapitalaren interesa, kontribuzio bereziek estaltzen ez duten parterako edo horiek orokorrean zatituz gero estalitako zatirako Udalak kreditua erabili beharko balu.

3) Obra nahiz zerbitzuetarako aurreikusi guztizko kostuak aurreikuspen izaera hutsa izango du. Benetako kostua aurreikusitakoa baino haundiago edo txikiagoa balitz, hura hartuko litzateke dagozkion kuotak kalkulatzeko.

4) Aurreko 4.1.c) artikulua aipatzen dituen obra nahiz zerbitzuak direnean edo, artikuluko bereko 2 zenbakiko kontzesiodunek egindakoak direnean, kontribuzio berezietako oinarri ezargarria, ekarpen horien arabera zehaztuko da, obra edo zerbitzu beraren zioz beste Administrazio Publikoek ezar ditzaketenei kalterik eragin gabe. Nolanahi ere, artikuluko honetako lehen zenbakiak aipatzen duen %90eko muga errespetatuko da.

5) Oinarri ezargarria ezartzeko, guztizko kostuari Udal Administrazioak lortuko dituen subentzio edo laguntzen zenbatekoa kendu ondoren lortzen den emaitza hartuko da Udal Administrazioak jasandako kostutzat.


6) Aipatu subentzio edo laguntza, kontribuzio bereziko sujetu pasiboaren batek emango balu, zenbatekoa pertsona edo entitate horren kuota konpentsatzeko erabiliko da lehendabizi. Subentzio edo laguntzaren balioak kuota hori gaituko balu, gehiegizkoa gainerako sujetu pasiboen kuotetatik kenduko da, hainbanatuz.

## V. KUOTA

### 8. artikulua

1) Kontribuzio Berezien oinarri ezargarria sujetu pasiboen artean banatuko da, obra eta zerbitzu mota eta izaera kontutan hartuz, hurrengo erregelon arabera:

a) Orokorrean, eraikinen fatxadako metro linealak, azalera, horien bolumen eraikigarria eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren eraginetarako katastroko balioa aplikatuko dira, batera nahiz banan-banan, banaketamodulu gisa.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

b) Suteen itzalketarako zerbitzuaren ezarpen, hedapen edo hobekuntza denean, udal barrutian kokaturiko ondasunen arriskua estaltzen duten entitate edo sozietateen artean egin daiteke banaketa, aurreko urtean bildutako primen zenbatekoaren proportzioan. Subjektu pasibo bakoitzari eska dakiogeen kuota berak bildutako kuoten zenbatekoaren %5a baino handiagoa balitz, gehiegizkoa hurrengo ekitaldietara atzeratuko da, guztiz amortizatu arte.

c) Ordenantza honetako 6.artikuluko d) atalak aipatzen dituen obrak direnean, kontribuzio berezien guztizko zenbatekoa, erabiltzaile izango diren konpainia edo enpresen artean banatuko da, horietako bakoitzari erreserbatutako espazioaren arabera edo horien sekzio osoaren arabera, nahiz eta berehala erabili ez.

### 9. artikulua

Aplikagarri den legeriak edo Nazioarteko Hitzarmenek hobari fiskalak ematen dituztenean, onuradunei legozkiekeen kuotak ez dira ginerako zergadunen artean banatuko.

### 10. artikulua

Ordaindu beharreko kuota finkatu ondoren, sujetu pasiboak horrela eskaturik, Udalak horren zatiketa edo gehienez ere bost urtetako epean luzatzea onetsi ahal izango du.

## VI. TRIBUTUAREN SORTZEPENA

### 11.artikulua

1. Kontribuzio bereziak lanak burutu diren edo zerbitzuak eskaintzen hasten diren unean sortzen dira. Lanak zatikagarriak balira, sortzapena sujetu pasiboetatik bakoitzarentzat sortuko da, obraren tarte edo zati dagozkionak egiten direnetik.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoaren kalterik gabe, ezarri eta ordenatzeko erabakia onartu ondoren Udalak kontribuzio berezien alde aurreko ordainketa eskatu ahal izango du, hurrengo urterako aurrekusi kostuaren zenbatekoaren arabera. Ezin izango da urteko ordainketa berri bat eskatu, ez badira bukatu obrak bukatu zeintzuetan aurrerakina eskatu bait zen.

3. Kontribuzio berezien sortzapen unean kontutan hartuko da ordaindu behar duen pertsona zehazteko xedez, 6.artikulan ezarritakoaren arabera, nahiz eta ordenamendu erabaki konkretuan subjektu pasibo gisa agertu onarpendatan subjektu zena eta horrek kuotak aurreratuak izan arren, artikuluko honetako bigarren zenbakian ezarritakoaren arabera. Ordenamendu erabaki zehatzean



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

subjektu pasibo gisa agertzen den pertsonak, horren jakinarazpena izan duelarik, ezarpena sortzen duten ondasun edo ustiapenen gaineko eskubideak eskualdatzen dituenean aipatu erabakia hartzen denetik sortzapena hasterainoko epearen barruan, egindako eskualdaketaren berri eman beharko dio Udal Administrazioari hori gertatu eta hurrengo hilabetean, eta horrela egingo ez balu, Administrazio horrek, espedientean subjektu pasibo gisa agertzen denaren kontrako kobraketa tramiteak egin ahal izango ditu.

4. Behin obrak osorik edo partzialki bukaturik edo zerbitzua ematen hasi ondoren, subjektu pasiboak, oinarria eta behin betiko kuota bananduak finkatuko dira, egoki diren likidazioak eginik eta egin litezkeen ordainketa aurreratutako konturako emaitza gisa konpentsatuz. Behin betiko finkatzen hori Udal Administrazioak egingo du, kasu horretako obra edo zerbitzurako tributuaren ordenamendu erabaki zehatzeko arauak beteaz.

5. Aurreratutako ordainketak tributuaren sortzapen unean subjektu pasibo izaera ez duten pertsonak egiten badituzte, edo dagokien behin betiko kuota individuala gainditzen badu Udal Administrazioak ofizioz egingo du beharrezko itzulketa.

## VII. EZARPENA ETA ORDENAMENDUA


### 12. artikulua

1. Kontribuzio bereziak eskatu ahal izateko aldez aurretik haiek ezartzeko erabakia hartu beharko da kasu konkretu bakoitzean.

2. Kontribuzio berezien bidez finantzatu behar den obra bat egin edo zerbitzu bat ezarri nahiz hedatzeari buruzko erabakia ezin izango da bete, aurrekoen ordenamendu zehatza onartu bitartean.

3. Ordenamendu erabakia nahi eta nahi ez hartu beharko da eta horren barruan obra eta zerbitzuen kostu aurrikusiaren zehaztapena, onuradunen artean banatu beharreko kantitatea eta banaketa erizpideak agertuko dira. Ordenamendu erabaki zehatza Ordenantza honen arabera izango da.

4. Kontribuzio berezietako ordenamendu erabakia harturik eta ordaindu beharreko kuotak zehazturik, banan banan jakinaraziko zaizkie sujetu pasiboek beraiek edo beren helbideak ezagunak balira eta, horren ezean, ediktu bidez. Interesatuek birjarpen arrekurtsoa jarri ahal izango dute Udalaren aurrean hala nola erreklamazio ekonomiko administratiboa Lurralde Historikoko Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren aurrean, horien edukina kontribuzio berezien egokitasuna, onura berezia ateratzen duten pertsonak ordaindu beharreko kostuaren portzentaia edo asignaturiko kuotak izan daitezkeelari. 13. artikulua 1. Udal Konpetentziako obra eta zerbitzuak Udalak burutu edo



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

eskaintzen baditu bestelako Entitate Lokalen baten kolaborazio ekonomikoarekin eta, foru-arautegian ezarritakoaren arabera kolaborazio bereziak ezartzen baldin badira, horien kudeaketa eta bilketa lanak burutzeko edo zerbitzuak ezarri nahiz hedatzeko ardura hartzen duen Entitateak egingo ditu, ezarpen eta ordenamendu erabakiei dagokienean entitate bakoitzak bere kompetentzia gordetzearen kalterik gabe. 2. Horietako entitateren batek ordenamendu erabki zehatza onartuko ez balu, eraginik gabe geldituko da iharduketa unitatea, bakoitzak bere aldetik hartuko dituztelarik beharrezko erabakiak.

### VIII. HERRITARREN KOLABORAZIOA

#### 14. artikulua

1. Obrek erasandako jabe edo tituludunek zergadunen administrazio Elkarteak osatu ahal izango dute eta obren burutzea edo udal zerbitzuen ezarpen nahiz hedaketa sustatu, obra edo zerbitzuaren izaeraren arabera dagozkienak gain, Udalarik dagokion parte ordaintzeko konpromisua hartuz, Udalaren finantza egoeratik berak egin ezin izango balu.

2. Halaber, obren burutzeak edo Udalak zerbitzu publikoak ezartze nahiz eratzeak erasandako jabe edo tituludunek zergadunen administrazio Elkarteak osatu ahal izango dute kolaborazio berezien ordenamendu akordioaren jendaurreko epealdian.

#### 15. artikulua

Aurreko artikulua aipatzen dituen zergadunen administrazio Elkarteak osatzeko, erasandakoen gehiengo osoak hartu behar du erabakia, beti ega gutxienez, ordaindu beharreko kuoten bi herenak baldin badira.

#### 16. artikulua

1. Zergadunen Elkartearen funtzionamendua, Toki Ogasunak erregulatzen dituen Foru Araua garatuko duten erregelamenduzko arauak ezartzen dutenaren arabera izango da.

2. Nolanahi ere, zergadunen administrazio Elkarteak harturiko erabakiak, kideen gehiengoarekin eta ordaindu beharreko kuoten bi herenak ordezkatzuz, obligaziozkoak izango dira gainerakoentzat. Elkarte horrek, beharrezko quorumarekin, Batzorde edo Batzar Beterazlea izendatuko balu, honek harturiko erabakiek indarra izango dute interesatuak behartzeko.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

3. Zergadunen administrazio Elkarteek, 14.artikuluko lehen eta bigarren zenbakietan ezarritakoaren arabera osotu ondoren, obra eta zerbitzuen zuzeneko exekuzioa eskatu ahal izango diote Udalari.

Horretarako, hurrengo baldintza hauek hartuko dira kontuan:

- a) Exekuzioa Udal Administrazioak egindako proiektuko baldintza eta epeak beteaz egin beharko da edo, gutxienez Elkarteak aurkeztu eta Udalak onartu proiektuaren arabera.
- b) Aipatu exekuzioa, nolana ere, Udalak izendaturiko teknikarien zuzendaritzapean egingo dira.
- c) Elkarteak bere gain hartuko du interes publiko nahiz pribatuei sortu ahal zaizkien kalteen ardura, hala nola exekuzioaren atzerapenarena eta behin betiko jaso ondorengo bost urteetan ager litezkeen ezkutuko bizioena.
- d) Udalak ahalmena du zergadunen administrazio Elkarteek aipatu obra eta zerbitzuen exekuziorako egingo dituzten proposamenak onartu ala errefusatzeko.
- e) Obra eta zerbitzuetarako udal ekarpena, horrelakorik baldin balego, behin betirako jaso eta berehala egingo da.

### IX. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

[Mantentzea proposatzen da.](#)

BIGARRENA.- 2024 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:

#### 2024 EKITALDIRAKO ZERGA EGUTEGIA

1.- HOBARI ESKAERA:

- 2024 urteko otsailaren 1etik 29ra bitartean.


2.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK:

- 2024 urteko apirilaren 2tik ekainaren 3 arte.

3.- URA ETA ZABORREN TASA:

2024 urteko maiatzaren 2tik uztailaren 2 arte.

2024 urteko abuztuaren 1etik urriaren 2 arte.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2024 urteko urriaren 1etik abenduaren 30arte.  
2025 urteko otsailaren 1etik apirilaren 3 arte.

HIRUGARRENA.- Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen 6.artikuluaren aldaketa (eta eranskina) hasieraz onartzea.

LAUGARRENA.-Erabakitakoaren berri udal iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz ematea, 30 laneguneko epea irekiz edonork espedientea aztertu eta erreklamazioak edota iradokizunak aurkezteko, bere kasuan. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, hartutako erabakiak behin-betikoz onartutzat emango dira beste erabakirik hartu gabe.




**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)







LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**BIGARRENGO PUNTUA**

**LARRAULGO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA ETA INGURUMEN  
EBALUAZIO ESTRATEGIKOAREN PROZEDURARI BURUZKO  
DUKUMENTUAK IDAZTEKO LANEN ESLEIPENA**

Kontuan hartuta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Alkatetza honek beharrezkotzat jotzen duela Larraulgo Udalaren Hiri Antolamenduko Plan Orokorra eta ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozedurari buruzko dokumentuak idazteko zerbitzu-kontratua izapidetzea.

Udal Zerbitzu Teknikoen txostena aztertu da. Bertan, proiektuaren alderdi teknikoak eta jarduketa horren bideragarritasuna zehazten dira, eta lizitazioa arautuko duten Baldintza Teknikoen Pleguak egiten dira.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 308. artikulua eta hurrengoetan dioena kontuan hartu dira.


Ikusirik, 642.151.00.01 aurrekontu aplikazioaren kargurako 163.350,00 euroko kreditu atxikipena, hau da, izapidetu beharreko zerbitzu kontratuaren balio zenbatetsia.

Udal honetako Idazkaritzak emandako txosten juridikoa aztertu da.

Kontratu hori arautuko duten administrazio-klausula partikularren agiriak onartu dira.

Udal honetako Kontuhartzaitzak igorritako aldeko fiskalizazioa aztertu da.

2023ko abuztuaren 3an egindako udalbatzarrean hartutako erabakiaren bidez, aipatutako kontratueterako kontratazio-espedita onartu zen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL 2017) 116. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, eta prozedura irekirako deialdia egin zen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL 2017) 156. artikuluan xedatutakoaren arabera.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Kontratazio Mahaiak egindako proposamena ikusita, non azaltzen duen eskaintza bakarra aurkeztu dela, hau da, "HIRIGRAMA KOOP. ELK. TXIKIA"-rena, lan hori egiteko gai izanik.

Kontuan hartu da sektore publikoko kontratazioari buruzko araudian jasotako preskripzioak bete direla eta, bestetik, eskaintza ekonomikorik onena HIRIGRAMA KOOP. ELK. TXIKIA enpresak aurkeztutakoa dela. Era berean, eskatutako dokumentazioa aurkeztu du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 140. eta 141. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

Ikusirik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz, Udalbatza dela kontratazio organo eskuduna.

Kontuan hartuta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL 2017) 151. eta 153. artikuluetan xedatutakoa.

Ikusita Herritarrak batzorde informatzailearen aldeko irizpena.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, aho batez, honako hau


### ERABAKI DU

LEHENA- HIRIGRAMA KOOP. ELK. TXIKIA merkataritza-enpresari esleitzea. Larraulgo Udalaren Hiri Antolamenduko Plan Orokorra eta ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozedurari buruzko dokumentuak idazteko zerbitzuen administrazio-kontratua, prozedura irekiaren bidez tramitatua, tramitazio arrunta, 135.000,00 eurokoa, BEZik gabe, eta egikaritze-aldia 14 hilabetekoa (benetako lana). Esleipen hau Hirigrama Koop. Elk. Txikiak jarri behar duen fidantza aurkeztearren baldintza pean geldituko da. Fidantza jartzen duenean, honen berri emango da.

BIGARRENA.- HIRIGRAMA KOOP. ELK. TXIKIA merkataritza-enpresari kontratu hori formalizatzeko eskatzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 153. artikuluan aurreikusten den moduan lizitatzailerei eta hautagaiei esleipen honen jakinarazpena jasotzen zaienetik hamabost egun balioduneko epean.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau administrazio-espeditentean interesatuei jakinaraztea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 155. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

LAUGARRENA.- Kontratazio honen formalizazioa kontratatzailearen profileen argitaratzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 154. artikuluan xedatutakoaren arabera.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BOSGARRENA.- Larraulgo Udaleko aholkulari teknikoa, Eba Erkizia Brion andrea, kontratu honen arduradun izendatzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

### **HIRUGARRENGO PUNTUA**

### **LARRAULGO ABALETAKO PARKEAN KOKATZEKO MOBIL HOME BAT EROSTEKO KONTRATUAREN PLEGU ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOEN ONESPENA ETA LIZITAZIOA ONESTEA**

Alkate-Lehendakariaren 2023ko urriaren 9ko probidentziaren bidez, hasiera ematen zaio “mobil home” bat erosteko kontratatzeke espedienteari, Alkatetzak sinatutako 2023ko urriaren 9ko proposamena eta kontratua justifikatzeko txostena oinarri hartuta.

Lizitazio honen aurrekontua, 35.865,00 euro, gehi BEZaren %21, 7.531,65 euro, hau da, 43.396,65 euro (BEZa barne).

Hornidura hori egiteko epea kontratua sinatzen denetik hilabete batekoa da, eta 2023ko abenduaren 23an amaituko da.

Espedienteari berariazko klausula administratiboen plegua erantsi zaio, prozedura irekiaren bidez.

Ikusita, Herritarrak batzorde informatzailearen aldeko irizpena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- “Mobil home” bat erosteko hornidura kontratatzeke espedientea onartzea, bai eta kontratua arautuko duten Administrazio Klausula Berezien Pleguak ere. Izapidetze-prozedura ireki sinplifikatua izango da, izapidetze murriztukoa.

BIGARRENA.- Kontratu honek dakarren gastua baimentzea, indarrean dagoen aurrekontuko 1 0000.623.327.00.02 aurrekontu-aplikazioaren kargura.

HIRUGARRENA.- Lizitazio publikoa kontratatzailearen profilean iragartzea.


LAUGARRENA.- Kontratazio mahaiko kide izendatzea:

-Maite Arana Perez, Larraulgo alkatea, lehendakari gisa.

-Maria Pilar Cortajarena, Larraulgo lehen alkateordea.

-Eba Erkizia Brion, Larraulgo udal teknikaria.

-Ane Gomez Urteaga, Udaleko idazkaria, idazkari gisa.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BOSGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Funtsen Kontuhartzaitzari, Larraulgo Udal Bulegoari eta Kontratazio Unitateari.

Beste gairik ez dagoenez, goizeko 12:15 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.